

**KATEKESIA**

---

## "Konpromisoa berritzu"

Hona hemen, kanpainaren ingurukoak lantzeko hainbat ideia. Misioaren gaia lantzen duten gazteen eta haurren katekesiko taldeetan eta gainerakoetan laguntzaile eta koordinatzaile direnei eskura jari nahi dizkiegun argibideak dira.

**IKUSI**

1.- Kartela begi-bistan jarri eta astia eman jendeak ikus dezan. Karteleko zein osagai gertatzen zaien deigarrien galdetuko diegu partaideei. Osagai bat edo bi aukeratzeko esango zaie. Taldekide bakoitzak zer eta zergatik aukeratu duen azalduko du (taldekideen adinaren arabera, hitz edo esaldi batez azal dezatela zer aukeratu duten).

**Elkarrizketan jardun taldean esan direnak kontuan hartuta.****EPAITU**

Entzun dezagun Jainkoaren Hitza:

**Markos 6, 7-12 edo Joan 15, 9-17**

Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela. Biderako deus ere ez hartzeko agindu zien, makila bat besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta gerrikoan dirurik ere; oinetan sandaliak eraman zitzatela, baina aldatzeko soinekorik ez. Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzen zaretenean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzan ez bazaitzute eta entzun nahi ez, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, beraien kontrako seinaletzat ». Joan ziren, bada, haiak eta berri ona hots egin zuten bihozberri zitezen. **Markos 6, 7-12**

Aitak maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet nik ere zuek; iraun tingo nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, nik neure Aitaren aginduak betez haren maitasunean irauten dudan bezala. Hau guztia nire poza zeuengana izan dezazuen esan dizuet, eta poz hori bete-betea izan dadin. «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, nik agintzen dizuedana egiten baduzue. 15 Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiaren asmoen berri; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazitako guztia adierazi baitizuet. Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela. Nire izenean Aitari eskatuko diozuen guztia, eman egingo dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar. **Joan 15, 9-17**

Zein da Jesusen proposamena?

Ba ote du zerikusirik kartelari buruz esan dugunarekin?

### **Elkarrizketan jarduteko:**

- Mundura ireki, ateaik ireki, besteentzako bila, gure adiskideen, auzotarren,... bila eta haratago begiratu: zer gertatzen da munduan?
- Bidegabekeriak jasaten dituztenen garrasia entzun..., adi egon gure inguruan, etxearen, adiskideen artean... gertatzen denaren aurrean. Ahulenen esanetara jarri, ahal dugun guztian lagunduz... Samurtasunez, itxaropenez...
- Eskuak behar ditugu Erreinuaren alde, lagun asko eta askoren bizitza hobetzearen alde lan egiteko. Jesusek dei egiten digu bihotzez eta gure eskuez baliatuz lagun dezagun.
- Konfiantza osoz, beldur gabe.

### **Jarduera**

Bi aukera:

I Margotzeko irudiaren (kartela) orria banatu eta astia eman koloreztatzeko. Elkarrizketan atera eta kartelean agertzen ez den zerbait gehi dezakete.  
Isiltasuna egiten saiatu.

II Margotzeko irudiaren orria gogoetari lotutako hainbat zatitan ebaki (eskuak, bihotza, etxeak, elizak, haurra,...). Margotu eta elkarrekin kartela osatu.

### **EKIN**

"Konpromisoa berritz" goiburua aukeratu da aurtengo kanpainarako.

Zer esan nahi du **konpromisoa** hitzak?

Gaztelaniazko hitza hartu eta silabaz silaba aztertzen badugu, hauxe izan daiteke azalpena:

**COM:** 'con', '(r)ekin' izan daiteke, hau da, norbaitekin, **elkarrekin**;

**PRO:** zerbaiten **alde** egotea adierazten du;

**MISO:** **misio** edo **kausa** adieraz dezake.

Orduan, nola definituko genuke konpromisoa? **ELKARREKIN MISIO BATEN ALDE.**

PD eta elkarrizketan azaldutakoa kontuan hartuta, nola jardun dezakegu elkarrekin misioaren alde?

### **KONPROMISOA**

Gertu dituztenekin gauza dezaketen konpromiso zehatza har dezatela.

### **OTOITZA**

Kanpainarako prestatutako power pointa proiektatuko dugu.

# Gure kontpomisoa berritu egingo dugu. Nola?

## 1.- Besteetan bila bidera ateraz, BESOAK IREKIZ HARRERA EGITEKO. MISIOLARI GARA



-Uste osoa izan behar dugu, Jainko gurekin da eta Misiora bultzatzen gaitu.

-Besoak zabalik, besteetan bila ateratzeko ordua da, harrera egiteko, adore emateko, laguntzeko, banatzeko, gure elkartetako ate eta leihoak mundura irekiz. Elizbarruti misiolari gara.

## 2.- Munduko anai eta arrebak entzunez. Denona den etxean bizi den familia gara. Ezin dugu inor bide-bazterrean utzi

-Pobretasuna, bidegabekeria, desberdintasuna..., jasaten duten pertsonen garrasia entzuteko ordua da.



## 3.- LEKUKO IZANIK, ITXAROPENEZ betez

-Jainkoak norbanako, herri, kultura orori dion Maitasunaren lekuko izanik.



## 4.- Eskuak, bihotza eta belarriak irekita

Misio-konpomisoari bizirik eusten lagunduko digun esku gehiago behar dugu. Misio-deia entzuteko belarriak zoli izango dituzten pertsonak. Misiorako prest, beren eskuez eta bihotzaz egiteko honekin bat egingo duten pertsonak.



**CATEQUESIS INFANCIA**

---

## "Renovamos el compromiso"

Compartimos algunas ideas para trabajar la campaña. Son algunas pistas para las personas que acompañen los grupos de Misiones, de jóvenes, con niños y niñas de catequesis, u otros. Esperamos que os sean útiles.

**VER**

1.-Colocamos el cartel en un lugar visible y dejamos unos minutos para observarlo. Preguntamos a las personas participantes qué elementos del cartel les llaman la atención. Se pide que elijan uno o dos elementos. En grupo cada persona comparte qué ha elegido y por qué. (Según la edad de las personas del grupo, proponer que definan con una palabra o una frase el elemento que han elegido).

**Se abre un diálogo a partir de lo expresado por el grupo.**

**JUZGAR**

Escuchamos qué nos dice la Palabra de Dios:

**Marcos 6, 7-12 ó Juan 15, 9-17**

"Llamó a los Doce y comenzó a enviarlos de dos en dos, dándoles poder sobre los espíritus malos. Les ordenó que no llevaran nada para el camino, fuera de un bastón: ni pan, ni morral, ni dinero; 9.que llevaran calzado corriente y un solo manto. 10.Y les decía: «Quédense en la primera casa en que les den alojamiento, hasta que se vayan de ese sitio. 11.Y si en algún lugar no los reciben ni los escuchan, no se alejen de allí sin haber sacudido el polvo de sus pies: con esto darán testimonio contra ellos.» 12. Fueron, pues, a predicar, invitando a la conversión." **Marcos 6, 7-12**

Este es mi mandamiento: que os améis unos a otros como yo os he amado. Nadie tiene amor más grande que el que da la vida por sus amigos. Vosotros sois mis amigos si hacéis lo que yo os mando (...) No sois vosotros los que me habéis elegido, soy yo quien os he elegido y os he destinado para que vayáis y deis fruto, y vuestro fruto permanezca. De modo que lo que pidáis al Padre en mi nombre os lo dé. Esto os mando: que os améis unos a otros». **Juan 15, 9-17**

¿Qué nos propone Jesús en estas lecturas?

¿Qué relación tiene con lo que hemos dialogado sobre el cartel?

## **Pistas para el diálogo:**

- Abrirnos al mundo, abrir las puertas, salir al encuentro de los demás: nuestros amigos y amigas, nuestros vecinos,.. y mirar más lejos: ¿qué pasa en nuestro mundo?
- Escuchar el clamor de las personas que sufren injusticias, ...estar atentas a lo que pasa a nuestro alrededor. Con ternura, con esperanza
- Necesitamos manos para trabajar por el Reino, para mejorar la vida de las personas. Jesús nos anima a colaborar con nuestras manos y nuestro corazón.
- Con confianza, sin miedo.

## **Actividad**

Dos opciones:

I Se reparte la lámina de colorear (que es el cartel) y se deja un rato para que colorean el dibujo. Que añadan lo que les parece que falta y que ha salido en el diálogo.  
Intentar crear un ambiente de silencio.

II Se reparte la lámina de colorear recortada en diferentes partes (las manos, el corazón, las casas, las iglesias, el niño,..) elementos que hacen referencia a la reflexión. Después de colorearla, entre todos construyen el cartel.

## **ACTUAR**

El lema de la campaña de este año es "Renovamos el compromiso"

¿Qué significa la palabra **compromiso**? Separamos la palabra en sílabas y de una manera un poco libre explicamos qué significa: Com-pro-miso:

**COM**: podría ser **con**, con alguien, es decir **juntos / juntas**;

**PRO**: significa estar **a favor de** algo;

**MISO**: podría significar **misión o una causa**.

Entonces, ¿qué significa compromiso? **JUNTOS Y JUNTAS A FAVOR DE UNA MISIÓN**

A partir de la PD y de lo que hemos dialogado ¿Cómo podemos trabajar juntos y juntas en favor de la misión?

## **COMPROMISO**

Les pedimos que concreten un compromiso, que puedan realizar con la gente cercana.

## **ORACIÓN**

Proyectamos el power point de la campaña

# Renovamos nuestro compromiso. ¿Cómo?

## 1.- Saliendo al encuentro ABRIENDO LOS BRAZOS PARA ACOGER. SOMOS MISIONEROS/AS



-Es tiempo de confiar, Dios está en nosotros y nos lanza a la Misión

-Es tiempo de salir a al encuentro de los demás con brazos abiertos para acoger, para animar, abriendo las puertas y ventanas de nuestras comunidades al mundo. Somos diócesis misioneras.

## 2.-Escuchando a nuestros hermanos y hermanas del mundo. Somos familia viviendo en una casa común. No podemos dejarlos en la cuneta.

-Es tiempo de escuchar la llamada de las personas que sufren pobreza, injusticia, desigualdad.



## 3.- SIENDO TESTIGOS, Llenándonos de ESPERANZA

-Siendo testigos del Amor de Dios en cada persona, en cada pueblo, en cada cultura



## 4.- Con manos, corazón y oídos abiertos .

Necesitamos más manos que nos ayuden a mantener vivo este compromiso misionero. Personas que abran los oídos a la llamada misionera y se sumen a esta tarea con manos y corazones dispuestos a la Misión.

